

PROGRAMAZIOAREN LABURPENA

HELBURUAK

1. Musika lanaren pertzepzio historikoa lantzea modu aktibo batean, idatzitako eta ikusi-entzumenezko errepertorio ezberdina erabiliz. Honen bitartez ikasi musikaren adiera historikoak eta bere garapena aro eta mugimendu artistikoen arabera.
2. Entzunaldien eta partituren bidez, landu historiaren zehar musikaren ezaugarriak.
3. Musika analisirako behar den lexikoa /terminologia zehaztasunez erabiltzea.
4. Analsiaren bitartez, musika praktika erraztea eta ulertzea.
5. Musika praktikoaren bidez, musika analisia ulertzea eta interpretatzea.
6. Musikarekiko ikuspegi irekiago bat lortzea zentzu kritikoaren bitartez.
7. Obran agertzen diren elementu guztiak antzematea, hala nola: forma, doinua, erritmoa, harmonia, ehundura, tinbrea, dinamika.
8. Musika ezaugarriak kontuan hartuta, generoa zein den jakitea eta garaian kokatzea.

EDUKIAK

1. Analisia oinarritzko hiztegia garai ezberdinari dagokionez.
2. Garaiz garaiko musika adiera nagusienak: erlijiosoa (gregoriano, meza, motetea eta abar) profanoa (madrigal, rondeau, opera, villancico,) instrumentalak (sinfonia, suite, dantzak, fuga, tiento) ahozkoak, (lied, chanson, anthem, organum).

3. Forma egituratzen dituzten elementuak: errepikapenak, esaldia, azpi-esaldia, gaia, motiboa, imitazioak, kadentziak eta harmonia (modulazioak eta abar).
4. Musika sistemak: modala, musika tonala, musika atonala,
5. Ehundura: monofonikoa, polifonikoa, homofonikoa, kontrapuntistikoa.
6. Musika tonala dagokionez: akordeak: maiorra, minorra, gutxitua, 7dunak, bigarren dominanteak, modulazioa, akordetik kanpoko notak.
7. Entzunaldi eta partitura analisiak.
8. Musika praktika aurreko edukiak kontuan hartuta: kitarra, pianoa, ahotsa.

KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA TRESNAK

1. Azterketa idatziak: Bi atal izango ditu
 - a. Terminoen definizioa
 - b. Partituaren/entzunaldiaren analisisaAzterketak ebaluaketaren %60a suposatuko du
2. Klaseko lana eta jarrera: Ikasleak egindako lana eta irakasgaiarekiko duen jarrera kontuan hartuko da. Atal honen balioa %40koa da. Klasera ez etortzeak edo puntualtasun faltak eragina izango du atal honetan.
3. Irakasgai honetan ebaluazio jarraitua izan arren berreskurapena egingen da.
4. Irakasgaiaren azken emaitza, hiru ebaluaketan arteko batez bestekoa eginez aterako da. Kontuan hartuko da ikasleak izandako bilakaera.
5. Hirugarren ebaluaketa ondoren, ikaslea kurtso osoko azterketa egiteko eskubidea izango du. Azterketaren nota maximoa bostekoa izango da. Ikasleak nota altuagoa izango du baldin eta zazpitik gorako emaitza ateratzen badu. Kasu honetan, kurtsoko azken emaitza seikoa izango da.
6. Nota goratzeko azterketa global bat egin daiteke kurtso bukaeran. Aurrekoak baino sakonago izanen da.